

Foru Aldundiak enpresa sortu berriak finantzatzeko eta proiektu berriak sortzen laguntzeko bide berri bat du

Foru erakundeak Artizarra Fundazioarekin bat egiten du oinarri teknologikoko zein edariaren eta elikaduraren sektoreari lotutako proiektu ekintzaile berriei laguntzeko

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 12a. Arabako Foru Aldundiak bat egin du Artizarra Fundazioarekin, enpresak finantzatzeko tresna berri bat izateko. Hala azaldu du Batzar Nagusietan Saray Zarate Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntzako diputatuak. Azpimarratu duenez, erakundeak "startupak eta lurraldea sortu berri duten enpresak sendotu nahi ditu, eta proiektu berriak sortzen lagundu, bai oinarri teknologikokoak, bai edariaren eta elikaduraren sektoreari lotutakoak".

Artizarra ibilbide ezaguna duen enpresaburu talde batek sortutako fundazioa da, lurraldea eraldatu nahi duena, enpresentzako eta gizarte osoarentzako onura sozialarekin, inpaktua sortzen duten ekimenak garatuz, benetako eraldaketa lortzeko, gizarteari balioa, aberastasuna eta iraunkortasuna emanaz eta enpresa-sarearen sustraitzeari eusten lagunduz. "Beraz, Sailaren helburuekin bat datorren Fundazio batek, bere funtsetako batzuetan parte hartzera eraman gaituena, Arabako ekintzaileei finantziarioa lortzea errazteko", azaldu du diputatuak.

Zehazki, partaidetza bi funtsetan oinarritzen da.

EASO VENTURES II funtsa, enpresa berritzaileetan inbertitzera bideratua, gehienbat Euskadin. Funts horrek hazkunde handiko eta oinarri teknologiko diferentzialeko sektoreetan inbertitzea aurreikusten du.

"Partaidetza horrekin, Araban adibide ugari ditugun eta negozio-ideia gauzatzeko edo sendotzeko zailtasunak izaten dituzten enpresa berritzaileek finantzaketa mota hori eskuratu ahal izatea bilatzen dugu", argitu du Zaratek.

Orientazio gisa, funts honek honako sektore hauetan inbertitzea aurreikusten du: e-commerce, social media, robotika, B2B Saas, Bigdata, Marketplace, 4.0 industria, eraginkortasun energetikoa, ekonomia jasangarria, gauzen internet, Blockchain eta hazkunde handiko eta oinarri teknologiko bereizgarria duten beste segmentu batzuk.

Bigarren funtsa STELLUM FOOD & TECH I da, elikaduraren eta edarien sektoreko enpresei eta haren balio-kateari zuzendua. Ardoaren industria eta nekazaritzako elikagaien industria Arabako ekonomiaren funtsezko ardatzak dira, eta gure parte-hartzearekin, ardogintza bultzatu eta proiektu berrien sorrera bultzatu nahi dugu.

Bi kasuetan, Arabako Foru Aldundiaren partaidetza-baldintzek baldintza argia ezartzen dute: funtsen kudeatzaileak hazteko finantza-laguntza behar duten Arabako enpresak identifikatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta Arabako Foru Aldundiak berak hitzemandakoaren pareko zenbatekoa Arabako enpresetan inbertitzekoa ere.

Enpresentzako aukera gehiago

Tresna horrek bat egiten du Foru Aldundiak helburu berarekin hartutako beste akordio batzuekin. Adibidez, Elkargirekin sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez ekintzaileek, ETEek eta Arabako autonomoek baldintza onuragarrietan eskura ditzaketen enpresa-proiektuetarako abalak.

"Hazibiden ere bazkide nagusiak gara. Hazi-kapitala duen sozietatea da, eta lurraldeko beste eragile batzuek parte hartzen dute bertan. Horrekin batera, inbertsio-estrategia berriak koordinatzen ari gara lurraldeko enpresa-proiektu berrietan", zehaztu du foru ordezkariak. Gainera, erakundeak ABE Capital Partner-en bidez antolatzen ditu inbertsioak lurralderako estrategikoak diren enpresetan eta enpresa-proiektuetan, eta Arabako funtsezkoak diren sektoreekin eta teknologiekin lotutako enpresetan inbertitzen du.

"BasqueFik, Euskadiko finantza eta inbertitzaile kluster berria, duela gutxi martxan jarri izana ere aipatu nahi nuke, haren konfigurazioan aktiboki parte hartu baitugu. BasqueFIK lurraldean oso errotuta dauden erakunde eta enpresek osatuko dute, eta lurraldeko finantza- eta inbertsio-ekosistema eraldatzeko helburuarekin sortu da, inbertsio-kultura handiagoaren, ekintzaileen eta enpresen eskura dauden tresnak zabaltzearen, esparru horretan talentua sortzearen edo finantzaketa-mekanismo berriak abian jartzearen alde eginez, besteak beste ", adierazi du Saray Zarete.